

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Juan San Martin XV. beka emateko deialdia. BDNS (Identif.): 553997.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/553997>).

1. *Dirulaguntzaren xedea.*

Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) laguntzarekin, euskarazko ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko, honen izena duen ikerketa-bekarako deia egiten du.

Ikerketa esparruak Juan San Martinek bere bizitzan zehar lantutako honako hauek dira:

– Antropologia, linguistika, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizalatasuna, zuzenbidea...

– 2021eko deialdian, honako ikerketa esparrua sartuko da: Filosofia.

2. *Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.*

2.1. Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

2.2. Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da diplomatu, maila horretako tituluduna edo goi mailako tituluduna izatea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.

2.3. Eskatzaileak bere euskarako gaitasuna frogatu beharko du EGA edo baliokide (*) den titulu edo ziurtagiri bidez. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

(*) Kontuan izan, 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskaraimaila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko dena; eta 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bate-ratuko mailekin parekatzen dituen.

3. *Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Beka honen diru zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da.

4. *Eskaerak non eta noiz aurkeztu.*

Beka eskuratzeko eskaerak elektronikoki egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, Izenpe txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea 2021eko irailaren 1etik urriaren 12ra arte egongo da zabalik, biak barne.

Eibar, 2021eko martxoaren 18a.—Enrique Errasti, Kontratazioen eta Dirulaguntzen Unitateko zuzendaria. (1984)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Convocatoria para la concesión de la XV Beca Juan San Martin. BDNS (Identif.): 553997.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/553997>).

1. *Objeto de la subvención.*

El Ayuntamiento de Eibar, en colaboración con la Universidad Vasca de Verano (UEU), convoca una beca de investigación, con el objeto de impulsar la investigación en euskera y homenajear al vascólogo e investigador eibarrés Juan San Martin.

Los ámbitos de investigación son los que cultivó Juan San Martin a lo largo de su vida:

– Antropología, lingüística, filología, toponimia, filosofía, literatura, botánica, arte, historia, periodismo, etnología, montañismo, derecho...

– En la convocatoria de 2021, el ámbito de investigación será la Filosofía.

2. *Requisitos para solicitar la subvención.*

2.1. La beca podrá ser individual o podrá recibirla un equipo conformado para ese fin. En el segundo caso, se deberá nombrar un/a director/a responsable del trabajo de investigación.

2.2. Para recibir la beca es imprescindible ser diplomado/a o disponer de titulación del mismo nivel o superior. En caso de ser un equipo, deben cumplir dicho requisito al menos la mitad de los miembros.

2.3. El/la solicitante deberá acreditar su competencia en euskera por medio del EGA o un título o diploma equivalente (*). En el caso de los equipos, todos sus miembros deberán acreditar dicha competencia.

(*) Tener en cuenta el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación de títulos y certificaciones lingüísticas en euskera; y el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

3. *Importe de la subvención.*

El importe de la beca será de 9.000 €.

4. *Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes para la obtención de la beca deberán realizarse electrónicamente a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de Izenpe, etc.).

El plazo de presentación de las solicitudes y el resto de la documentación es del 1 de septiembre al 12 de octubre de 2021, ambos inclusive.

Eibar, a 18 de marzo de 2021.—El director de la Unidad de Contratación y Subvenciones, Enrique Errasti. (1984)